



## JARDUEREN MEMORIA CRISTINA ENEA FUNDAZIOA 2017



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

◆ Ingurumen Baliabideen Etxea  
Centro de Recursos  
Medio Ambientales



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

◆ Uliá Interpretazio Zentroa  
Centro de Interpretación de Uliá



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

◆ Natur Txoko



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

◆ Bizikletaren Behatokia  
Observatorio de la Bicicleta



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

◆ Iraunkortasunaren Behatokia  
Observatorio de la Sostenibilidad



## AURKIBIDEA

<b>1.- CRISTINA ENEAKO INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEA.....</b>	<b>1-23</b>
<b>1.1.- Erakusketak.....</b>	<b>1-3</b>
1.1.1.- Erakusketa egonkorrak .....	1
1.1.2.- Aldi baterako erakusketak .....	1-3
<b>1.2.- Sentsibilizazio ekintzak .....</b>	<b>4-10</b>
1.2.1.- Hitzaldiak eta mahai-inguruak .....	4-7
1.2.2.- Zikloak eta proiektzioak.....	8
1.2.3.- Irteerak.....	9-10
<b>1.3.- Eskola-heziketa (Eskola Agenda 21).....</b>	<b>11</b>
<b>1.4.- Ikastaro eta tailerrak .....</b>	<b>12-15</b>
<b>1.5.- Aste tematikoak.....</b>	<b>16</b>
1.5.1.- Aste Berdea .....	16
1.5.2.- Mugikortasunaren Astea .....	16
<b>1.6.- Zikloak .....</b>	<b>17</b>
1.5.1.- Lagunekin zinemara.....	17
<b>1.7.- Kanpainak.....</b>	<b>17</b>
1.7.1.- Gabonak zuretzat.....	17
1.7.2.- Uda berdea .....	17
1.7.3.- Kontsumoaren Eguna .....	17
<b>1.8.- Proiektuak.....</b>	<b>18</b>
1.8.1.- HidroLogikak .....	18
1.8.2.- EtxEKOlanda .....	18
1.8.3.- Haziera .....	18
1.8.4.- JantziAgain .....	18
<b>1.9.- Bestelakoak .....</b>	<b>19-23</b>

<b>2.- URGULLEKO NATUR TXOKOA.....</b>	<b>24</b>
<b>2.1.- Udaberria .....</b>	<b>24</b>
<b>2.2.- Uda .....</b>	<b>24</b>

<b>3.- ULIA INTERPRETAZIO ZENTROA.....</b>	<b>25-29</b>
<b>3.1.- Erakusketak .....</b>	<b>25</b>
<b>3.2.- Tailerrak .....</b>	<b>26-27</b>
<b>3.3.- Irteerak eta ibilbideak .....</b>	<b>28</b>
<b>3.4.- Besteak.....</b>	<b>29</b>

<b>4.- IRAUNKORTASUNAREN BEHATOKIA .....</b>	<b>30-31</b>
<b>4.1.- Agora K2050.....</b>	<b>30-31</b>
<b>4.2.- Txostenak.....</b>	<b>31</b>

<b>5.- BIZIKLETAREN BEHATOKIA .....</b>	<b>32</b>
<b>5.2.- Aste tematikoak .....</b>	<b>32</b>

<b>ANEXO.- RESUMEN EJECUTIVO .....</b>	<b>32-35</b>
--	--------------

## 1.- CRISTINA ENEAKO INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEA

### 1.1.- ERAKUSKETAK

#### 1.1.1.- Erakusketa egonkorrak

##### Kontsumo Arduratsuaren gela

**Data:** Ikasturte osoan zehar (urritik maiatzera)

**Edukiak:** Zentroaren lehen solairua okupatzen duen erakusketa honek kontsumo-ohitura iraunkorrako hartzeko dauden aukerak ezagutarazi nahi ditu, horretarako gai ezberdinak landuko dira hiru espazio definituetan: Etxeko kontsumoa, erosketak eta Mugikortasun Iraunkorra.

**Ekoizpena:** Cristina Enea Fundazioa

**Bisitariak:** 712 pax

#### 1.1.2.- Aldi baterako erakusketak

##### 2017ko Jasangarritasunaren egutegia: Turismo jasangarria

**Data:** Abenduak 22 – Urtarrilak 22

**Edukiak:** Usandizaga Institutoko Publizitate Grafikako 2. mailako ikasleek zazpigarren urtez Cristina Enea Fundazioko Jasangarritasunaren Egutegia diseinatu dute. Erakusketa honek, proiektuaren garapenean sortu diren lanak biltzen ditu. Aurtengo gaia izan da, turismo jasangarria.

**Ekoizpena:** Cristina Enea Fundazioa eta Usandizaga Institua

**Bisitariak:** 98 pax

##### Hiriko baratzeak irudikatzen

**Data:** Abenduak 22 – Urtarrilak 22

**Edukiak:** “Imajina ezazu zure baratze gustokoena” tailerrean parte hartu duten haurren eta Maite Arrieta, Agustín Caballero, Kanif Beruna eta Soraya Garciaren lanak biltzen ditu erakusketa honek, guztiak nekazaritzaren eta landareen munduaren gainean.

**Ekoizpena:** Cristina Enea Fundazioa, SorayArte

**Bisitariak:** 158 pax

##### Chernobyl Herbarium

**Data:** Otsailak 1 – maiatzak 1

**Edukiak:** Txernobyleko hondamendi nuklearraren 30. Urtemugaren bueltan, Anaïs Tondeur artistak Txernobyleko “eskusio guneetan” hazten diren landareekin herbario bat egin zuen. Erradiazio handia jasan duten landareek izandako trauma jaso eta erakutsi nahi duten 30 fotograma edo “izpigramak” dira. Michael Marderren hausnarketa filosofikoek –Esplotatutako kontzientzia baten pasarteak- natura eta mundua landareen ikuspegitik birpentsatzera gonbidatzen gaituen herbario honen narrazioa lotzen dute.

**Ekoizpena:** Cristina Enea Fundazioa

**Bisitariak:** 1018 pax

##### Urumea bizi

**Data:** Maiatzak 13 – abuztuak 27

**Edukiak:** Ibaia, bizi iturri bai, baina ikusten dugun ura baino zerbait gehiago ere bada. Ertzak, zeharkatzen duen lurzorua, lurrazpiko urak, ibar basoak, uholde-lautada, inguruko mendi magalak eta hango landaredia, haranak, azken batean, arro osoa eta hura jasotzen duen itsasoaren zatitxo bat ibaiaren parte dira. Bertako biztanleak ugariak eta anitzak dira. Hona hemen haietako batzuei eskainitako eskeroneko begirada xumea.

**Ekoizpena:** Cristina Enea Fundazioa, Haritzalde naturzaleen Elkarte

**Bisitariak:** 1560 pax



### Errebelazioak

**Data:** Uztailak 19 – abuztuak 27

**Edukiak:** 2015. urtetik HidroLogikak proiektuaren baitan kokatzen den “Ibaia ez da toki bat” laborategiaren aurtengo edizioan, Urumea ibaiari hurbiltzeko sortutako lan eta prozesu artistikoen bilduma kuttun bat aurkezten dugu. Zehazki, Lurdes R. Bassolí-k emandako “Ibaia erretratu gisa” argazkilaritza dokumental tailerrean sortutako lanak, eta Jon Cazenavek zuzendutako “Urdin Urumea” zianotipia tailerrean ekoiztutakoak izango ditugu ikusgai.

**Ekoizpena:** Cristina Enea Fundazioa

**Bisitariak:** 990 pax

### Iberiar hegazti sarraskijaleak. Ekosistemen garbiketa patruila

**Data:** Irailak 2 – abenduak 10

**Edukiak:** Hegaztiak eta beren hegan egiteko gaitasunak gizakia betidanik liluratu dituen arren, "nekrofagoen" edo sarraskijaleen elikadura motak kontrako jarrera sustatu izan du, arbuioa eta jazarpena eraginez. Nolanahi ere, naturako materialen birziklatze lanean duten partehartzea dela eta, oso zerbitzu ekosistemiko garrantzitsuak betetzen dituzte, askotan onarpenik izan ez arren. Hegazti nekrofagoen askotariko lumajeak, formak eta itxurak argazkigintzarako aukera amaigabeak eskaintzen dituzte. Horixe baliatu dute Ramón Arambarri eta Mario Bregañak, mendi garaietako eta eremu bakartietako ikur diren espezie horien alor eder eta misterioetsuenak antzemateko.

**Ekoizpena:** Cristina Enea Fundazioa, Ramón Arambarri, Mario Bregaña

**Bisitariak:** 1254 pax

### Begirada kontzientekak

**Data:** Irailak 14 – azaroak 30

**Edukiak:** Inoiz pentsatu al duzu zer-nolako eragina duten zure eguneroko ohiturek eta jokabideek tokian-tokian eta mundu osoan? Ohartuta edo ohartu gabe betikotzen dugun munduan merkatuaren arauak, dirua eta kodizia lehenesten dira, eta benetan garrantzia duena alde batera uzten da: pertsonak, bizitza, ingurumena eta ezinbestekoak diren beste balio batzuk. Erakusketa honetan Calcuta Ondoan GGKEK horretaz guztiaz gogoetatzera gonbidatzen zaitu, 2012ko World Press Photo sariaren irabazle Fernando Molerés argazkilaria argazkien eskutik.

**Ekoizpena:** Cristina Enea Fundazioa, Calcuta Ondoan.

**Bisitariak:** 990 pax

### Errefuxiatuak ongietorri

**Data:** Urriak 16 – urriak 28

**Edukiak:** “Errefuxiatuak, Ongietorri”, errefuxiatuen egungo krisi-egoera modu sistematikoan aztertzen duen erakusketa da. Eleuterio Quintanilla Taldeak egin eta MUGAKenlanguntzaz, aukera ematen du modu osatu eta kritiko batean errefuxiatuen egoeraren inguruko hausnarketa egiteko. Sarritan era fragmentatu, manipulatu eta modu propagandistiko batean lantzen den gai honetara kontzienteki gerturatzeko aukera paregabea da erakusketa.

**Ekoizpena:** Cristina Enea Fundazioa, Calcuta Ondoan.

**Bisitariak:** 36 pax

### **2018ko Jasangarritasunaren egutegia: Negutegia**

**Data:** Abenduak 20 – urtarrilak 31

**Edukiak:** Usandizaga Institutuko Publizitate Grafikako 2. mailako ikasleek zortzigarren urtez Cristina Enea Fundazioko Jasangarritasunaren Egutegia diseinatu dute. Aurtengo gaia Klima-Aldaketaren aurkako borroka da, planetaren eta bertan bizi garenon biziraupenaren aldeko borroka. 2018rako erronka handi bati heltzea erabaki dugu, gure hiria buru-belarri lantzen ari dena eta, anbiziotsua bezain ezinbestekoa den helburu komun batekin.

**Ekoizpena:** Cristina Enea Fundazioa, Usandizaga Instituta

**Bisitariak:** 33 pax

### **Uraren hezurra**

**Data:** Abenduak 22 – otsailak 4

**Edukiak:** Leku bakoitzeko kultura, eta musika bereziki, oso lotua dago estalpea ematen dioten inguruneari eta ekosistemei. Zein soinu izango luke Antartikako musikak bizilagun natiboak izango balitu? Teresa Jareño Querejetak (Donostia, 1987) galdera horri erantzun nahi izan zion, 2015ean Carlini eta Marambioko (Argentina) base antartikoetan egon zenean. Ingurune naturalarekin lotzen gaituzten ikerketa eta proiektuetan interesa duen egile honek ikus-entzunezko esperientzia bat sortu du, eta espazio antartikoa era erreflexiboan behatu eta sentitzera gonbidatzen gaitu: inguruneak eta guk elkarri nola eragiten diogun adi eta ingurumenarazoarekiko sentikor.

**Ekoizpena:** Cristina Enea Fundazioa

**Bisitariak:** 57 pax

## 1.2.- SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK

### 1.2.1.- Hitzaldiak eta mahai-inguruak

#### Ciudades 3.0. Un espacio saludable para la ciudadanía [Agora K2050]

**Hizlaria:** Mario Rodríguez Vargas

**Data:** Urtarrilak 25

**Edukiak:** Greenpeacek bultzatzen duen hiri-eredua aurkeztuko da hitzaldian, energiari dagokionez negutegi efektuko gas isuririk gabeko eredua alegia, berotze globalean garraioak eta hiriko mugikortasunak duten garrantzian sakonduz. Espainiar estatuko hiri metropolitarrak gune nagusietara gerturaketa bat: Bartzelona, Bilbo, Madril, Malaga, Sevilla, Valentzia eta Donostiaren gaitasunak.

**Bisitariak:** 115 pax

#### Transgresiones climáticas, transiciones energéticas y creación de empleo [Agora K2050]

**Hizlaria:** Cote Romero

**Data:** Martxoak 1

**Edukiak:** Nolakoa da gaur egun gure eredu energetikoa? Lehen mailako zer energiarekiko mendekotasuna dugu? Bere deskarbonizazioa ahalbidetuko duen beste eredu energetiko batera jauzi egiteko zer erronka eta aukera daude? Hitzaldian galdera horiei erantzun zuzenak, teknikoki posible, ekonomikoki bideragarri eta sozialki bidezko den energia berriztagarrietan oinarritutako sistema bat progresiboki indarrean jartzea ahalbidetuko duten bideak erakutsiz.

**Bisitariak:** 99 pax

#### Euskadi: Etorkizunerako Ereiten [Agora K2050]

**Hizlaria:** Ainhize Butron, Marian Barquín

**Data:** Martxoak 29

**Edukiak:** Natur-ondareari eta bioaniztasunari buruzko ikuspegi bat landuko da, bai eta klima-erronkei aurre egiteko duten gaitasuna ere. Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategia 2050 eta Bioaniztasunaren Estrategia 2030 bidez ezarritako planifikaziotik, aldatzen ari den klimari aurre egiteko Euskadiko ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuen kontzeptua landuko da.

**Bisitariak:** 57 pax

#### Txernobyngo errealitate soziala

**Hizlaria:** Ander Izagirre, Chernobil Elkarteak

**Data:** Apirilak 5

**Edukiak:** Txernobylen ateratako argazkiekin eta bertan jasotako bizipenekin, hango errealitatera eramango gaitu Ander Izagirre kazetari eta idazle donostiarrak. Chernobil Elkarteak berriz, kutsatutako eremuko haurrei gurean harrera eginez burutzen duten ekintza solidarioak, haurren osasunean eragiten dituen onurak azalduko dizkigu.

**Bisitariak:** 21 pax

#### El futuro de las nucleares españolas en el aniversario de Chernóbil [Agora K2050]

**Hizlaria:** Paco Castejón

**Data:** Apirilak 25

**Edukiak:** Espainian 6 zentral nuklear dauden lanean, eta horietatik bik 2 errektore dute bakoitzak (Almaraz eta Ascó), ezarritako potentzia totala 7.728 Mwe-koa izanik. Batez beste 32 urteko adina dute, hasiera batean 25-30 urteko bizitzarako diseinatu baziren ere. Garoñako zentral nuklearraren balizko irekierak energia nuklearraren defendatzaileen eta kontrakoien artean polemika piztu du berriz. Zein da gaur egun nuklearraren panorama? Zer paper jokatzen du zentral nuklearrak klima-aldaketari aurre egiteko? Zer arrazoi egon litezke estatuko zentral nuklear zaharrena martxan jartzearen atzean?

**Bisitariak:** 122 pax

### **Sidra y modernidad: la travesía oceánica de las culturas campesinas [Haziera]**

**Hizlaria:** Marc Badal, Amy Franceschini, Jakoba Errekondo

**Data:** Maiatzak 9

**Edukiak:** Landaguneetako mundua eta arrantzaleen itsas-deribak lotzen zituen zubia izan da sagardoa Euskal Herrian. Landaguneetako kulturen eta pertsona eta merkantzien zirkulazio globalaren arteko loturari buruz hausnarketa egitea ahalbidetzen duen banda metabolikoa. Modernitatearen makineriaren etengabeko mugimendua koipeztatu duten suspergarri material eta kulturalen bitartez azken mendeetako historiara ger turaketa planteatzen dute sagardoak eta sagarrak.

**Bisitariak:** 69 pax

### **La bioconstrucción es una realidad [Semana de la Bioconstrucción]**

**Hizlaria:**

**Data:** Maiatzak 15

**Edukiak:** Nola antolatu hiri jasangarri bat, Ekoauzoak. Zer da bioeraikuntza hirian? Errealitatea ala utopia? Bioeraikuntzan aditu diren lagunek eskainiko dituzten hitzaldien ondoren, eztabaidarako tarte zabalduko da, mahai inguru baten bidez gaiari buruzko iritziak trukatu ahal izateko. Bioerainkutzaren II. Astearen testuinguruko jarduera.

**Bisitariak:** 17 pax

### **Buscando ciudades saludables [Semana de la Bioconstrucción]**

**Hizlaria:**

**Data:** Maiatzak 16

**Edukiak:** Hirien osasunean eragiten duten faktoreak. Bulego eta etxebizitzetako arrisku eragileak. Hiri eredu eta osasunean adituak diren lagunek eskainiko dituzten hitzaldien ondoren, eztabaidarako tarte zabalduko da, gaiari buruzko iritziak trukatu ahal izateko. Bioerainkutzaren II. Astearen testuinguruko jarduera.

**Bisitariak:** 12 pax

### **Teosinte, contaminación genética y colonización de la vida [Haziera]**

**Hizlaria:** Rosa Binimelis

**Data:** Maiatzak 17

**Edukiak:** Genetikoki eraldatutako uztak dira nekazaritzaren eta biosferaren artifizializazioaren zurrumbiloaren azken katebegia. Bere generalizazioak eragindako ondorio anitzen artean, testuinguru biopolitiko berrira egokitzeko gai den teosinte bezalako landare basatien ugaritzeari ateak irekitzen dizkiete transgenikoek.

**Bisitariak:** 23 pax

### **Semillas en la frontera [Haziera]**

**Hizlaria:** Gregorio Fisac

**Data:** Ekainak 14

**Edukiak:** Europatik iristen zen landare-materiala kontrolatzeko bulego bat zegoen Behobian. Bulego hortako lana ezagutzeko eta hazien zirkulazioan administrazio publikoek jokatzen duten paperaz hausnartzeko "hazi-aduana" hartan lan egin zuen funtzionario batekin hitz egiteko aukera izango dugu.

**Bisitariak:** 8 pax

### **Movilidad Sostenible y Cambio Climático [Agora K2050]**

**Hizlaria:** Carlos Corral, José Luis Cañavete

**Data:** Irailak 13

**Edukiak:** Salgaiak garraiatzeko eta pertsonak mugitzeko erek eta bideek, bai eta hirietako espazio mugatua okupatzeko moduak ere, lotura zuzena dute negutegi efektuko gas isurien kopuruarekin eta gure hirietateko habitat-en aire-kalitatearekin. Hirigarraioak eragin handia du klima-aldaketarengan eta garraioari lotutako negutegiefektuko gas isurien erdiak hirietan gertatzen dira. Gure inguruko eta mundu zabaleko hirietako bizitza-kalitatea hobetzeko eta isuriak gutxitzeko garraioaren eta hirigintza-erlaketan esparruetan hartzen ari diren neurriak eta aurrean ditugun erronkak ezagutu eta horien inguruan eztabaidatuko dugu bi adituren laguntzarekin. Parte hartuko dute Carlos Corral hirigintza-ingeniariak eta José Luis Cañavete hirigintza-geografoak.

**Bisitariak:** 119 pax

### **Aretxabaletako tomatea eta landatutako bioaniztasuna [Haziera]**

**Hizlaria:** Marta Barba, Marc Badal

**Data:** Irailak 26

**Edukiak:** Aretxabaletako Tomatearen II. Astearen baitan, landatutako bioaniztasunaren garrantzi historikoaz, kulturalaz eta agronomikoaz mintzatuko gara hitzaldidastaketa honetan, adibide gisa Aretxabaletako tomatea hartuta. Hizlariak azken hileetan identifikatutako Aretxabaletako tomatearen hainbat azpi-barietate dastatzeko aukera egongo da.

**Bisitariak:** 16 pax

### **¿Consumes violencia? Consumo, migraciones y desplazamientos forzados**

**Hizlaria:** Maryan Fathi, Tarana Karim Tek

**Data:** Urriak 18

**Edukiak:** "Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Astea"-ren barnean dagoen Donostiako Zero Pobrezia Plataformak antolatzen duen hitzaldi honetan, galdera hauek eta beste batzuk ere landuko dira. Hala nola, egoera horiek guztiak nola eragiten dieten emakume eta gizonei.

**Bisitariak:** 24 pax

### **Turismo sostenible y convivencia ciudadana [Agora K2050]**

**Hizlaria:**

**Data:** Urriak 18

**Edukiak:** Nola garatu bisitariak eta bertako biztanleek harmonian oinarritutako harremana izango duten turismo eredu bat? Nola ahaldundu biztanlegoa, kanpotik datozenak integratu, gatazkak planifikatu eta saihestu, eta desorekak ekidin? Nola garatu onurak banatuko dituen eta bertako ekonomien aniztasuna indartuko duen turismoa? Turismo ereduarekin lotutako gai hauek eta gehiago partekatuko ditugu gonbidatutako udalerrietako ordezkariarekin.

**Bisitariak:** 75 pax

### **Merkataritza eta kontsumo eredu justuak eta eraldatzaileak tokiko eta global eremuan**

**Hizlaria:**

**Data:** Azaroak 10

**Edukiak:** Jardunaldian merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaileen esperientziak eta proposamen teoriko eta praktikoak ezagutzeko eta partekatzeko aukera izango dugu. Pixkanaka gure mundua tokitik abiatuz eta globalki pentsatuz aldatzen joateko.

**Bisitariak:** 30 pax

### Los Buitres Ibéricos: Amenazas y Conservación

**Hizlaria:** Nicolás López Jiménez

**Data:** Azaroak 18

**Edukiak:** Iberiar penintsulan egun dauden lau hegazti harrapari nekrofago espezieak ezagutuko ditugu: zer paper betetzen duten ekosistemetan, beren ezaugarri biologiko nagusiak, beren banaketa, errolda eta kontserbazio egoera. Espezie bakoitzak dituen mehatxuak aztertuko dira bai eta beren populazioak babesteko beharrezko neurriak proposatu ere.

**Bisitariak:** 22 pax

### Copenhague, una ciudad que afronta el cambio climático [Agora K2050]

**Hizlaria:** Morten Kabell

**Data:** Azaroak 23

**Edukiak:** Bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko, isuri kutsakorrak murrizteko eta klima-aldaketari egokitzeko helburuarekin azken urteotan hainbat neurri abian jarri ditu Kopenhage hiriak. Topaketan, 2025erako Kopenhagez karbonoaren ikuspegitik neutroa izango den hiria egiteko ekintza-sorta koordinatzen duen zinegotziarekin solasteko aukera izango dugu.

**Bisitariak:** 70 pax

### Visibilizando las violaciones de Derechos Humanos y la impunidad que las rodea

**Hizlaria:**

**Data:** Azaroak 29

**Edukiak:** Bizitza jasangarria eramatearen ondorioz izandako eskubide-urraketak ikustaraziko dituzten proposamenak, salaketak eta ezagutzak partekatzeko mahai-inguru bat. Latinoamerikako, Europako, Estatu espainiarreko eta Euskal Herriko lekukotzak partekatuko dira, bestelako borrokak babesten dituzten ordezkari eta erakundeen presentziarekin.

**Bisitariak:** 23 pax

### La gestión municipal de residuos, un compromiso colectivo [Agora K2050]

**Hizlaria:** Ignasi Puig

**Data:** Abenduak 20

**Edukiak:** Egunero hirietan sortzen diren hondakinak jasotzea eta kudeatzea udal politiketako gai garrantzitsua da, eta udalerrri bakoitzeko etxe eta eragileen eguneroko konpromisoa eskatzen du. Hondakin horiek hautatzeko, botatzeko eta jasotzeko moduak baldintzatzen du material horiek berriz erabili ahal izatea. Hondakinak ez sortzeko edo sortutako hondakin kopurua ahalik eta txikiena izateko tokiko egitasmoek ere garrantzi handia dute isuriak murriztu eta hondakinen udalkudeaketaren kostuei eusteko.

**Bisitariak:** 66 pax

### Errefuxiatua naiz

**Hizlaria:** Serigne Fall

**Data:** Abenduak 22

**Edukiak:** Serigne Fallek kudeatuko duen topaketa honetan, errefuxiatuen eskutik euren bizi-istorioak ezagutuko ditugu, beren etxea utzi behar izan zutenetik gure artean bizi arte. Ekitaldia bukatzeko, dastaketa gastronomiko siriarra eskainiko da, DJ MAT SEA-ren musikarekin. Helduak Elkartek antolatutako ekitaldia.

**Bisitariak:** 12 pax

## 1.2.2.- Proiekzioak

### “Guti zura” [Semana de la Construcción Sostenible]

**Data:** Maiatzak 17

**Edukiak:** Dokumental honetan aintzinetik etorkizunerako bidaia egingo dugu lur hontako gizakiaren eta zuraren arteko harremana azalduz. Horretarako pertsonaia hautatuen bizi-esperezia pertsonala eta mundu mailako adituen txori begirada erabiliko ditugu, historia eta istorio konbinaketa poliedriko baten bidez lehengo, oraingo eta etorkizuneko basoen eta zuraren gako nagusiak azalduz. Proiekzioaren ondoren egurraren erabilerari buruzko eztabaida egongo da.

**Bisitariak:** 13 pax

### “Alone in the wilderness” [Semana de la Construcción Sostenible]

**Data:** Maiatzak 18

**Edukiak:** Dick Proennekeren istorioa kontatzen du, 60. hamarkadaren bukaeran guztia atzean utzi zuen gizonak, Alaskako Twin Lakes ingurura naturaz inguratuta bizitzera joan zen. Oinarrizko lanabes gutxi batzuren laguntzaz bere etxola eraiki zuen. Dokumental honek, ingurunearekin harmonian bizi izan zituen 30 urteetan eguneroko bizitza jasotzen du.

**Bisitariak:** 37 pax

### “Demain” [Agora K2050]

**Data:** Maiatzak 31

**Edukiak:** 2100. urterako gizateriaren zati bat desagertuko zela zioen ikerketa bat argitaratu ostean, Cyril Dion eta Mēlanie Laurent, lau laguneko talde batekin, 10 herrialdetara joango dira ezbeharraren arrazoiak aztertzeraz, baina batez ere saihesten ahalegintzera. Bidaiari zehar, nekazaritza, energia, ekonomia, demokrazia eta hezkuntza berrazmatzen dituzten aitzindariekin topatuko dira. Beren lana amaituta, mundu berri bat sortuko den aukera ikustatzen hasten dira: biharko mundua.

**Bisitariak:** 88 pax

### Udako zinemaldia aire irekian

**Data:** Uztailak 4, 5, 6, 7

**Edukiak:** Uda-gau bateko ametsa antzezlanak izan zuen arrakasta ikusita, DSS2016EU hiriburutzaren ospakizunen baitan egin zena, gaueko parkea komedia horrentzat eskenatoki bilakatu nahi dugu berriro ere. Udako lau gau izango dira William Shakespeareren klasiko horren moldaketa zinematografikoak gozatzeko. Aurten eman diren filmak hauek izan dira:

- A Midsummer Night’s Dream (1935)
- Sommarnattens leende (1955)
- A Midsummer Night's Dream (1968)
- A Midsummer Night's Sex Comedy (1982)

**Bisitariak:** 237 pax

### “The True Cost” [JantziAgain]

**Data:** Azaroak 15

**Edukiak:** Zine-forum eta mahai ingurua Arropa Garbia Kanpaina, JantziAgain eta Sindesperdiorekin. Film honen bidez modak pertsona eta naturarengan duen eragina ikusi ahal izango dugu. Horrek ekoizpenaren “trapu zikinez” hausnarketa kritikoa egiteko aukera emango digu. Proiekzioa bukatzerakoan, marken esplotazioaz gehiago jakin ahal izango dugu kontsumo arduratsuen, elkartrukearen eta tokiko kontsumoaren aldeko gakoak emanez. Baloreari ipiniko dira tokiko esparrutik moda egiteko eredu honen aurrean beste egiteko duin eta arduratsuak martxan jartzen ari diren alternatibak.

**Bisitariak:** 8 pax

### 1.2.3.- Irteerak

#### Mendizorrotzeko Hezeguneak: Igeltxoaren Bizilekuak

**Data:** Urtarrilak 28

**Edukia:** Hegoaldeko zuhaitz-igela edo Igeldoko igela, izar mediatikoa izanik itzal handia sortu du eta bere gerizpean animalia eta landare espezie ugari babesten ari dira. Putzuak, tamaina txikiko hezegune izanik ere, biodibertsitate gordailu aberatsak dira. Ibilaldi baten bidez, horien handitasuna ezagutuko dugu, Xabier Rubio eta Ion Garin Barrio herpetologoaren eskutik.

**Partehartzaileak:** 36 pax

#### Domaine d'Abbadiera bisita eta upel baten inguruan bazkaria [Haziera]

**Data:** Maiatzak 10

**Edukia:** Chateau d'Abbadie inguruetan Euskal Herriko antzinako sagarrondo barietate bilduma bat dago. Lurralde desartikulazio eta homogeneousazio kultural garai hauetan nekazarien memoriaren hariari eustearen garrantzia gogora arazten digute horrelako gauzek. Zuhaitz horiek zaintzen dituztenekin ezagutuko dugu bilduma bizi hori eta Iparraldean artearen eta kultura garaikidearen munduarekin lotura duten pertsona eta kolektiboekin hausnarketak partekatze aukera paregabea izango da. Loturak estutzeko eta bizipenak kontatzeko modu egokia izan daiteke bazkari bat. Zer hobe bazkari bat sagardotegi batean eta Gipuzkoan sagardoarekin tradizio handienetakoa duen herri batean egitea baino.

**Partehartzaileak:** 6 pax

#### Urumeatik kanoan [HidroLogikak]

**Data:** Maiatzak 13

**Edukia:** Ura bideratzeko lanen ondorioz Martutenen eraikitako moilatik abiatuz, ibaiaren jaitsiera egingo dugu banakako kanoan (2 edo 3 lagun bakoitzean), Mundaizeko ontziraleturaino. Urumea bere uretatik zehar nabigatzeko aukera aparta, arraunean eta bere bidean izan dituen aldaketak behatuz.

**Partehartzaileak:** 20 pax

#### Urumeatik piraguan [HidroLogikak]

**Data:** Ekainak 10

**Edukia:** Ura bideratzeko lanen ondorioz Martutenen eraikitako moilatik abiatuz, ibaiaren jaitsiera egingo dugu piraguan Mundaizeko ontziraleturaino. Urumea bere uretatik zehar nabigatzeko aukera aparta, arraunean eta bere bidean izan dituen aldaketak behatuz.

**Partehartzaileak:** 13 pax

#### Añarbeko urtegira irteera [HidroLogikak]

**Data:** Ekainak 11

**Edukia:** Añarbeko Uren Mankomunitatearen eskutik Añarbeko urtegiko azpiegiturak eta ingurunea ezagutuko ditugu. Urtegi horrek Gipuzkoako biztanleen %44 hornitzen ditu. Donostiako ur-hornidurari buruzko historia ere ezagutuko dugu, bai eta sistema hori egonkortzeko burutuko diren lanak ere.

**Partehartzaileak:** 25 pax

#### Taller de limpieza de semillas en Beizama, con Aleka [Haziera]

**Data:** Azaroak 3

**Edukia:** Beizamako Amenabar baserrian du egoitza Aleka elkarteak. Bere helburu nagusia da artisau eran ekoiztutako hazi ekologikoen ugalketa eta salmenta. Esperientzia berri hori ezagutuko dugu zalantza praktikoak planteatuz eta nahi duenak Alekan eskuragarri dauden tresnak erabiliz bere haziak garbitu ahal izango ditu.

**Partehartzaileak:** 6 pax



### **Tolosako Babarrun Elkartera bisita [Haziera]**

**Data:** Azaroak 22

**Edukia:** Tolosako Babarrun Elkarreak Tolosako babarrunen ekoizleak batzen ditu. Lekale hori da Gipuzkoako bariedade ezagunena eta bertako kultura gastronomian berebiziko papera betetzen du. Elkarrearen lana ezagutuko dugu bisita honetan, bai eta babarrunaren haziak nola hobetzen, kontserbatzen eta ugaltzen dituzten ere.

**Partehartzaileak:** 6 pax

### 1.3. ESKOLA-HEZIKETA (ESKOLA AGENDA 21)

#### Eskolen arteko foroak

**Edukiak:** Eskola Agenda 21 egitasmoan parte hjartzen duten Donostiako ikastetxeetako ikasleen topaketa, lantzen diharduten gaiaren inguruan eginiko lan eta proposamenak komunean jartzeko. LHko ikasleak.

**Data:** Apirilak 27

**Partehartzaileak:** 100 pax

#### Eskolen arteko foroak

**Edukiak:** Eskola Agenda 21 egitasmoan parte hjartzen duten Donostiako ikastetxeetako ikasleen topaketa, lantzen diharduten gaiaren inguruan eginiko lan eta proposamenak komunean jartzeko. DBHko ikasleak.

**Data:** Maiatzak 3

**Partehartzaileak:** 100 pax

#### Udal foroa

**Edukiak:** Udal ordezkarien eta Donostiako Eskola Agenda 21 egitasmoko ikasleen arteko topaketa.

**Data:** Maiatzak 17

**Partehartzaileak:** 150 pax

#### Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxeko Hezkuntza Eskaintza

**Edukiak:** taliler didaktikoak, bisitak eta beste jarduerak.

**Data:** 2017 urtean zehar

**Partehartzaileak:** 9.881 pax

#### Ulia Interpretzaio Zentroko Hezkuntza Eskaintza

**Edukiak:** taliler didaktikoak, bisitak eta beste jarduerak.

**Data:** 2017 urtean zehar

**Partehartzaileak:** 2.553 pax

#### Eskoletan bertan egindako jardueren partaidetza

**Edukiak:** Ondakin, Eskolan konposta, Txoriak, Nekazal Kultura Eskoletara proiektuetako jarduerak

**Data:** 2017 urtean zehar

**Partehartzaileak:** 5.042 pax

#### 1.4.- IKASTARO ETA TAILERRAK

##### Dotoretu zure auzoa: Gabonetako apaingarri jasangarriak sortuz

**Data:** Urtarrilak 4

**Edukiak:** Denon artean gabonetako apaingarriak sortzeko haurrentzako jarduera. Material desberdinak berrerabiliz eta irudimen handiarekin Alfonso XIII plazako zuhaitzak apainduko ditugu, bertako merkataritzarekin elkarlanean auzoari eder eta bizi eusteko.

**Partehartzaileak:** 23 pax

##### Tailer irekia: joskintza, moda eta birziklaketa [JantziAgain]

**Data:** Hileko azken igandean

**Edukiak:** Modari, joskintzari, jantzigintzari eta arropen pertsonalizazioa eta optimizazioari lotutako ideiak eta ezaguerak partekatzeko topagunea. Tytty Thusberg arropa jasangarri, slow fashion eta birziklaturiko materialen diseinatzaileak koordinatua. JantziAgain egitasmoak beharrezko materialak eta josteko tresnak jartzen ditu partehartzaileen esku.

**Partehartzaileak:** 146 pax

##### Haziak ugaltzeko tailerra [Haziera]

**Data:** Otsailak 15, otsailak 22,

**Edukiak:** Hazi onak lortzeko hainbat gauza hartu behar dira kontuan, bai eta erreprodukzioa errazteko gure baratzean nekazal-jarduerak pixkat eraldatzea ere. Tailer honetan teknika egokiak eta kalitatezko haziak lortzeko jarraitu beharreko irizpideak ikasiko ditugu.

**Partehartzaileak:** 10 pax

##### Bastidoreetan ehunduz [JantziAgain]

**Data:** Otsailak 26

**Edukiak:** Joskintza teknikei buruzko lehenengo tailer honetan, JantziAgain egitasmoaren testuinguruan, bastidore laukietan ehuntzen ikasiko dugu. 25x25 zentimetrotako ehungailuak erabiliz poltso txiki bat edo gure arropak atontzeko eta eraldatzeko osagarriak egin ditzakegu modu errazean.

**Partehartzaileak:** 24 pax

##### Hazitegia egin eta zaintzeko tailer praktikoa [Haziera]

**Data:** Martxoak 7

**Edukiak:** Gure hazi propioak ugaltzeko fase garrantzitsu eta zail bat da hazitegia egitea. Ereite eta zaintza teknika nagusiak, substratu mota ezberdinak, aplikatu beharreko tratamenduak eta sor daitezkeen arazoak ezagutzeko, Karabelekon lan egiten duten lagunen esperientzia eta ezaguerak izango ditugu gurean.

**Partehartzaileak:** 14 pax

##### Online komunikazioa, tresnak eta gaitasunak

**Data:** Martxoak 30

**Edukiak:** Saretuz-ek Adibide agentziarekin batera antolatutako tailer honetan, komunikazio eredu klasikoak eta berriak aztertuko dira, kontsumo arduratsuenaren ikuspegitik. Besteak beste, sare sozialen erabilerari buruzko ikasketa.

**Partehartzaileak:** 23 pax

##### Ekoprint [JantziAgain]

**Data:** Apirilak 9

**Edukiak:** Sustraiak, zurtoinak, hostoak eta loreak erabiliz egiten den estanpazio teknika bat da EcoPrint, pigmentoa eta formaehunetan zuzenean sartuz. Tailerrak teknika berezi honetara gerturatuko gaitu eta parte-hartzaile bakoitzak bere lana burutuko du.

**Partehartzaileak:** 10 pax

### **Baratza ekologikoa: etxean zure baratza sortzeko oinarrizko ezaguerak [EtxEKOlanda]**

**Data:** Apirilak 24, maiatzak 8, 15, 22, 29 (euskaraz), eta apirilak 26, maiatzak 3, 10, 17, 24 (gazteleraz).

**Edukiak:** Ikastaro honetan etxeko terraza edo balkoian baratza bat sortu eta mantentzeko jakin beharreko guztia ikasiko da, modu guztiz praktikoan.

**Partehartzaileak:** 20 pax

### **El río como retrato [HidroLogikak]**

**Data:** Maiatzak 5, 6, 7

**Edukiak:** Lurdes R. Basolík zuzendutako argazki dokumental tailer teoriko-praktikoa aztertuko ditugu. Mundu zabaleko hainbat ibaitan eginiko lan esanguratsuak, Basolík Danubion eginikoari harreta berezia eskainiz. Lan horiek guk geuk Urumea ibaiari buruz egingo dugun argazki-erretrotoa sortzeko inspirazio bilakatuko zaizkigu.

**Partehartzaileak:** 21 pax

### **Artozko alfonbrak ehunduz [JantziAgain]**

**Data:** Maiatzak 14

**Edukiak:** Euskal Herrian antzina erabiltzen zen teknika batez arto-hostoekin egingo dugu lan, etxera eramateko pieza txikiak eginez. Aspaldi, alfonbrak egiteko erabili ohi zen bezala josiko ditugu hostoak. Lola Altolagirrek zuzendutako jarduera.

**Partehartzaileak:** 10 pax

### **Taller práctico sobre materiales naturales para uso en interior de viviendas [Semana de la Construcción Sostenible]**

**Data:** Maiatzak 20

**Edukiak:** Gure etxebizitzan barnealdean material egokiak, toxikorik gabeak eta naturalak erabiltzea funtsezkoa da. Tailer honetan, aditu baten eskutik estaldura naturaletara hurbiltzeko aukera izango dugu, erakustaldi praktikoa egingo da eta partehartzaileek eurek ere, materialen aplikazioak probatzeaz gain, hainbat lagin egingo dituzte.

**Partehartzaileak:** 6 pax

### **Pigmentu naturalekin margoak egiten ikasteko haurrentzako tailerra [Semana de la Construcción Sostenible]**

**Data:** Maiatzak 20

**Edukiak:** Material tradizional naturalak erabiliz, haurrek eurek sortuko dituzte margoak, ondorengo tailerrean euren sorkuntzak egiteko material gisa erabiltzeko, baita talde muraletan ere.

**Partehartzaileak:** 24 pax

### **Birziklatutako ehunekin arrosak [JantziAgain]**

**Data:** Ekainak 11

**Edukiak:** Erabiltzen ez diren ehunekin (%100 poliester) loreak egiten ikasiko dugu, sugarraren teknika erabiliz Inma Gómezekin.

**Partehartzaileak:** 10 pax

### **Urdin Urumea [HidroLogikak]**

**Data:** Ekainak 16, 17, 18

**Edukiak:** Tailerraren helburua da zianotipiaren prozesuaren bidez irudiak lortzeko teknikara gerturaketa bat egitea. Teknika horrek eskaintzen dituen aukera grafikoak esploratuko ditugu Urumea ibaira gerturaketa esperimentalak egiteko eta espazioaren, argiaren eta denboraren arteko harremana ikusgai egingo duen lana sortzeko. Jon Cazenavek zuzendutako zianotipia tailerra

**Partehartzaileak:** 13 pax

### **Ehunezko mandalak, Lucía Sánchezekin**

**Data:** Irailak 10

**Edukiak:** Gauza politikak sortuz erlaxatzeko eta gozatzeko egokia den ehuntze-teknika bat ikasiko dugu tailer honetan. Mandala apaingarriak egingo ditugu, meditazioan eta sendatzean aliatu boteretsuak. Mandalak Indian du jatorria (bere izenak 'zirkulu' edo 'gurpil' esan nahi du sanskrito hizkuntzan) eta beren formaren eta kolorearen arabera interpreta daitezke.

**Partehartzaileak:** 11 pax

### **Haziak erauzteko eta gordetzeko ikastaroa [Haziera]**

**Data:** Urriak 5

**Edukiak:** Haziak erauzteko eta berauek modu egokian gordetzeko irizpide nagusiak ikasteko tailer praktikoa. Ekar itzazu zure fruituak edo landareak haziak erauzteko 'prest' eta tailerrean egingo dugu.

**Partehartzaileak:** 6 pax

### **Boro (adabakiak) Yolanda Sanchezekin [JantziAgain]**

**Data:** Urriak 8

**Edukiak:** Janzkien adabakien eta berrerabileraren artea ahaztu xamar dago "erabili eta bota" kontsumo-praktikaren erruz. Tailer honetan boro ("adabakiak") izeneko teknika japoniarra ikasiko dugu, eskuzko puntadekin diseinu originalak eginez eta adabakiak josiz. Material, kolore eta puntada konbinazio egokiarekin estilo bereziko piezak egingo ditugu.

**Partehartzaileak:** 5 pax

### **Haziak erauzteko eta gordetzeko ikastaroa [Haziera]**

**Data:** Urriak 25

**Edukiak:** Haziak erauzteko eta berauek modu egokian gordetzeko irizpide nagusiak ikasteko tailer praktikoa. Ekar itzazu zure fruituak edo landareak haziak erauzteko 'prest' eta tailerrean egingo dugu.

**Partehartzaileak:** 8 pax

### **Indarkeria kontsumitzen duzu? Kontsumoak eta indarkeria matxisten korapiloa askatzen**

**Data:** Urriak 30

**Edukiak:** Bazenekien indarkeria kontsumitzen dugula? Indarkeria matxista kontsumoan naturalizatua, barneratua eta gure gizarteak onartua dagoela? Tailer honekin indarkeria matxista eta kontsumoaren arteko harremanean sakontzera gonbidatu nahi dizugu. Deslokalizatutako industrietan indarkeria hori nola ematen den ere aztertuko dugu. "Begirada Kontzientek" erakusketara egingo dugun bisita gidatuak tailerrean landuko diren gaietara modu errazean gerturatzea ahalbidetuko du. Setem Hego Haizea eta Arropa Garbia Kanpainaren eskutik.

**Partehartzaileak:** 12 pax

### **Artilezko jertseak: upcycling Kris Merakirekin**

**Data:** Azaroak 12

**Edukiak:** Erabiltzen ez ditugun artilezko jertseak neguan erabiltzeko eskuzorro, galtzerdi edota ileorde-txano erakargarri bilakatuko ditugu. Gure sorkuntzak apaintzeko artilezko loreak egiten ere ikasiko dugu.

**Partehartzaileak:** 12 pax

### **Hegaztiak bereizten ikasteko ikastaro aurreratua**

**Data:** Azaroak 22, 23, 25

**Edukiak:** Habia udalerrian egiten duten hegazti ohikoenak bereizteko formakuntza aurreratua eskainiko du ikastaroak, Donostiako hegazti habiagileen Atlas (AtlaSS) egitasmoaren baitan. Bi saio teoriko izango ditu, bai eta behaketak egiteko eta ikasitakoa praktikara eramateko irteera bat ere, Ametzagaina. Antolatzaileak: Donostiako Udala, Aranzadi Zientzia-Elkartea,

Cristina Enea Fundazioa, Itsas Enara Ornitologia Elkarte, Ugatza-Club Vasco de Camping eta SEO/BirdLife.

**Partehartzaileak:** 12 pax

## 1.5.- ASTE TEMATIKOAK

### 1.5.1.- Aste Berdea

Ekainaren 5ean ospatzen den Ingurumenaren Mundu Eguna dela-eta, Cristina Enea Fundazioak hainbat jarduera antolatu ditu egunotarako, Aste Berdea izeneko programazioan bilduak. Jardueran Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean eta Ulia Interpretazio Zentroan izan go dira.

#### **Cristina Eneako Ingurumen Ipuin Lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia**

**Data:** Ekainak 5

**Edukia:** Cristina Eneako VIII. Ingurumen Ipuin Lehiaketara aurjeztu diren lan onenak saritzeko ekitaldia. LH eta DBH maila bakoitzean bi sari ematen dira, euskarazko eta gaztelerazko ataletan.

**Partehartzaileak:** 53 pax

#### **2015ko Urteko Iraunkortasunaren Txostena**

**Data:** Ekainak 23

**Edukia:** Cristina Enea Fundazioko Iraunkortasunaren Behatokiak Donostiako Iraunkortasunari buruzko Urteko Txostena publikatu du, 2015. urteari dagokiona. 14 ataletan banatuta dauden 48 adierazleren bidez hiriko ingurumen-egoeraren diagnostikoa egiten du txosten honek, denboran zehar izan duten bilakaera aztertuz eta lortutako datuen inguruan hausnartuz. Bestalde, gizonen eta emakumeen presentzia desberdina bereizi ahal izan diren esparruetako genero-ikuspegi zehatzagoa biltzen du txostenak, bai eta aukera parekotasunaren aldeko Erakunde laguntzaileei buruzko adierazle bat ere.

**Partehartzaileak:** 12 pax

### 1.5.2.- Mugikortasunaren Astea

#### **Europako Mugikortasun Jasangarriaren Astea. “Mugikortasun garbia, partekatua eta zentzuduna”**

**Data:** Irailak 16-22

**Edukiak:** Beste urte batez, Europar Batasunak garraiobide aktibo edo kolektiboetara gehietzearen eta ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzearen onurei buruz hausnartzeko gonbitea egiten digu. Aurtengo leloak garraioa eta ekonomiaren arteko harreman estua azpimarratu nahi du, mugitzeko era arduratsuagoak eta zentzudunagoak tokiko ekonomian eragiten duela nabarmenduz.

**Partehartzaileak:** 5.000 pax

### 1.5.2.- Hegaztien Astea

#### **Hegaztien Eguna. Ulian txio-txioka**

**Data:** Urriak 1

**Edukiak:** Cristina Enea Fundazioak hegaztien ezagutza eta babesa bultzatzeko Hegaztien Eguna ospatuko du. Aurtengo jardueren programak Cristina Enea parketik Ulia Interpretazio Zentrora egingo du hegan.

**Partehartzaileak:** 16 pax

## 1.6.- ZIKLOAK

### 1.6.1.- “Lagunekin zinemara”. Eguberrietako zinemaldia Cristina Enean

Eguberrietan haur eta gazteei eskainitako zine-emanaldia Cristina Enea.

“**Tarzan**”

**Data:** Abenduak 27

**Ikusleak:** 0 pax (parkea itxita egon zen haizeteagatik)

## 1.7. KANPAINAK

### 1.7.1.- Gabonak zuretzat

**Birziklatutako txotxongiloak**

**Data:** Abenduak 26

**Edukiak:** Egunkari zaharrak, plastikozko poltsak edo komuneko tutuak bota behar al dituzu? Zatoz Cristina Eneara txotxongilo dibertigarriak sortzera.

**Bisitariak:** 8 pax

**Urtezahar gaueko festarako prestatzen!**

**Data:** Abenduak 28

**Edukiak:** Material berrerabiliarekin zure gustoko txano, pajarita eta maskarak sortu ahal izango dituzu, urte zahar festa primeran pasatzeko.

**Bisitariak:** 5 pax

**Aitona-amonon opariak**

**Data:** Abenduak 29

**Edukiak:** Belaunaldien arteko tailer honetan, nagusiek gazteenei birziklatutako materialekin opari eder bat nola egin erakutsiko diete. Panpin paraxutista dibertigarri bat, plastikozko poltsak erabiliz. +55-rekin elkarlanean.

**Bisitariak:** 2 pax

### 1.7.2.- Uda berdea

**Zentzumenekin jolasean eta Cristina Eneako altxor ezkutua**

**Data:** Uztaila eta abuztua

**Edukia:** Udan haur eta gazteen taldeei eskaintzen zaizkien jarduerak sartzen dira kanpaina honetan. Aurtengoan **Izadi Kapitaina Superheroi bat parkean** eta **Dukearen altxorren bila** tailerrak burutu dira, eta partehartzaileak Haur Hezkutzako eta Lehen Hezkuntzako lehen mailako gazteak izan dira.

**Partehartzaileak:** 432 pax.

### 1.7.3.- Kontsumoaren eguna

**Kontsumo kontzientea, herri partaidetzatik eraikitzen den kontsumoa**

**Data:** Martxoak 18

**Edukia:** Donostiako Kontsumo Kontziente eta Arduratsuaren aldeko Sarea den Saretuz eragilearekin elkarlanean, hirian zehar hainbat informazio gune kokatuko dira, gure planetarekiko modu adeitsuan, arduratsuan eta eraldatzailean erosketak egiteko aukeren inguruan hausnartzeko.

**Partehartzaileak:** 256 pax.



## **1.8.- PROIEKTUAK**

### **1.8.1.- JantziAgain**

JantziAgain egitasmoak bi jarduera-esparru ditu: bigarren eskuko arropa partekatzeko merkatua eta tailerrak. Aurten, Tytti Thusbergek koordinatutako tailer irekiak (moda, joskintza eta jantzien optimizaziori buruzko ideia eta ezagutzak partekatu nahi dituztenentzat) joskintzarekin loturiko tailer tematiko sorta batekin txandakatuko ditugu.

### **1.8.2.- EtxEKOlanda**

Baratze bat nola egin, eta nola zaindu ikasteko haur, gazte eta helduei zuzendutako ikastaroak, bi esparrutan bananduak: ikastetxeei eta helduei. Ikastetxeei zuzendutako jardueretan, eskola-baratzeak lantzen dira (eta eskolak ez badauka baratzea, Kultur Etxeetakoak erabiltzen dira, une hauetan esaterako, Intxaurriondokoa eta Lugaritzekoa). Helduei zuzendutakoetan berriz, ikastaro teoriko-praktikoak eskaintzen dira aipaturiko bi kultur etxeetan eta Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean.

### **1.8.3.- Agora K2050**

AGORA K2050 egitasmoan, hilero San Telmo Museoa izango diren hitzaldi, mahai-inguru eta solasaldi publikoen bidez gai ezberdinetako hainbat aditurekin iritzia partekatzeko aukera egongo da egungo gizartearen ekoizteko, kontsumitzeko eta ugaltzeko moduei lotutako ingurumen inpaktuei eta inpakto sozialei buruz. Pluraltasun hiritarrarentzat topagunerako espazio ireki baten gisara eratu da AGORA K2050, non etorkizuneko belaunaldien bizitza bermatuko duen gizarte eredu baterako trantsizioari buruzko konplexutasunak, ezajakintasunak eta galderak plazaratuko diren, bai eta gizarte eta hiri libreago, bidezkoago eta Planetarekin harmoniatsuago bat lortzeko erronkak ere.

### **1.8.4.- Haziera**

